

LOMCEren aurka protestak Nafarroan, 3. mailako azterketen astean

Nafarroako Gobernuak erabakita, LOMCE legeak Lehen Hezkuntzako 3. mailan ezartzen dituen probak abiatu dituzte Foru Erkidegoko ikastetxeetan. Horren aurka, elkarretaratze zaratzak egin dituzte Hezkuntza Departamentuaren aurrean.

| IRUÑE ASTITZ LARUNBE |

ASTE OSOAN ZEHAR egin dituzte probak eta ikasle, irakasle eta guraso ugari ikastetxeen aurrean beltzez jantzita elkarretaratzeak egin dituzte eskolak hasi aurretik.

Azken asteetan, ehunka familiak azterketa hauei eta LOMCEri oro har desadostasuna adierazi diote. Proba ez egiteko eskaera bidali diote, gutun bidez, ikastetxeetako zuzendariei. Horrez gain, hainbat gurasok, Herrikoak eta Sortzen elkarteak azterketaren aurkako mila sinaduratik gora aurkeztu dituzte Hezkuntza Departamentuan.

José Iribas Hezkuntza kontseilariak ikasle, irakasle eta gurasoen eskariaren aurka, zortzi urteko 6.724 neska-mutikori azterketak egiteko agindua eman du. Erantzuna “inposaketa” bidez etorri izana salatu du Sortzen elkarteak: “Ikasle guztiek egin behar dute proba eta desobeditzen duen irakasleari espediente irekiko diote”.

“Proba bakar batean ateratzen diren emaitzei ematen zaie garrantzia, ikasketa prozesu osoari eta ebaluake-



SORTZEN ELKARTEA

Ikasle, guraso eta irakasleek elkarretaratzeak egin dituzte ikastetxe aurrean, azterketen aurka protestatzeko.

“Eragin akademikorik gabeko proba batekin horrelako presioa baldin badago, zer gertatuko da DBHn eta Batxilergoan?”

**Gari Torregrosa,
Sortzen**

ta jarraiari garrantzia kentzen zaion bitartean”, salatu dute gurasoek.

Era berean, Sortzeneko kide Gari Torregrosa, proba hauek haurren ikas prozesuan izan dezaketen eraginaz mintzatu da: “Ebaluazio diagnostikoan, emaitza adierazteko hiru zenbaki erabiltzen zituzten orain arte: 1, 2 eta 3. Hemendik aurrera berriz, ez-gaunditua, nahikoa eta halakoak agertuko dira. Horrek ikasleei eragingo die eta lehia izango da. Eragin akademikorik gabeko proba batekin horrelako presioa baldin badago, zer gertatuko da DBHn eta Batxilergoan?”.

EAEn, 30 ikastetxetan egin dute azterketa

EAEn, 30 ikastetxetan egin dituzte azterketak, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi duenez. Hezkuntza Topaguneen Plataformak azterketari planto egiteko deia egin du: “Azterketa egin nahi diguten egun horretan ez ditugu gure ikasleak eskolara eramango, edota bestelako jarrerak hartuko ditugu aipatutako proba ez egiteko”. Azterketa ez egiteak ikasleentzat ez duela inongo ondorio akademikorik ekarriko adierazi du plataformak. ■